

# Xabier Lete, itzultzaile

---

GOTZON EGIA

## **Sarrera**

Hona hemen Xabier Lete (1944-2010) idazle eta kantariaren alderdi ez hain ezaguna: Lete itzultzailea.

Poeta hil berri dela, eta haren oroimena gogoratzeko ekitaldiak oraindik isildu ez direlarik, bere kantuetan beste hizkuntzetako poeta nahiz kantariei hartu zizkien hitz batzuk bildu nahi izan ditugu *Senez* aldizkariaren ale honetara.

Hogei pieza dira, Letek bere ibilbide musikalean zehar kantatutakoak, horietako batzuk bere diskoetan grabatuak ere bai, guztiak *Abestitzak eta poema kantatuak* (2006, Elkar) izeneko bilduma liburuan argitaratuak. Hona ekarri nahi izan ditugu, argitaratzailearen baimenaz, ohar labur batzuez lagundurik.

Poema kantatu horiez gain, Rainer Maria Rilke-ren *Das Stunden-Buch* obraren 22 poemaren errezitazioa grabatu zuen,

2001eko irailaren 22an, Oiartzungo Udaltxean, eta CD batean argitaratu, *R.M. Rilkeren "Orduen liburua"* izenburuaz argitaratu (2004, Pamiela/Arteola). Poema horiek kantatzeko ez, baizik esateko itzuliak izan zirenez, kontsiderazio hauetatik kanpo utzi ditugu.

## **Kanturako itzulpenak**

Leterena itzulpen instrumentala dela esan genezake, oro har: kantatuak izateko euskaratu zituen bere kantari poeta kutunen hitzak. Gurari poetikoaren edo literario hutsaren ginetik, ikuspegi musikala gailentzen da haren itzulpenetan. Hitz neurtuen itzulpenak eskuak libre eskatzen badizkio itzultzaileari, zer esanik ez, melodia jakin baten barruan ezinbestean sartu beharra daukan poema itzuliak askatasun erabatekoaz jokatzeko eskubidea ematen dio itzultzaileari.

Hala jokatu zuen Xabier Letek, batzuetan bere jokamoldea nolabait arrazoitu behar zuela ikusi zuen arren. George Brassens-en «San Martin, azken larrosa» izan zen Letek grabatu zuen lehen kanta, euskarara ekarritakoen artetik, *Kantatzera noazu* diskoan (1976, Artezi). Itzulpena baino gehiago, guztizko moldaketa edo egokitzapen bat da Letek grabatu zuena; izenburutik hasita, Brassenes-ena «Saturne» baitzen jatorriz. Ohar hau erantsi zuen Letek, ez 1976ko diskoan, baina bai 2006ko *Abestitzak eta poema kantatuak* bilduman:

«Hitzen aldetik, desberdintasun haundi xamarra dago abesti honen jatorrizko izenburua eta euskerazko izenburuaren artean. Hala ere, Saturno, mitologian, denboraren jainkoa izanik, hurbil gelditzen zaigu abestiak euskeraz dioenarekin. Eta gainera, San Martinetako azken larrosarena Brassensek berak esaten du ahapaldi batean.»

Funtsean arrazoia izango zuen Leteren sen poetikoak, Saturnoren esanahi mitologikoa indartsu baita Brassenes-en poeman («...*le temps tue le temps comme il peut*»), eta frantsesez ageri den «*la marguerite de l'été de la Saint-Martin*» horren atzean erraz igarri baitaiteke urrelilia edo *sanmartin lorea*.

### **Musika, poesia, itzulpena**

Musikatik poesiara, eta poesiatik itzulpenera, hala irudikatu daitezke Xabier Letek euskaratutako poema kantatu hauek egindako ibilbidea; edo, agian, poesiatik musikara lehenik, eta handik itzulpenera, gero.

Argi daude, hautuetan, Leteren zaletasun literario-musikalak: poeta kantariak, gizonezkoak, ahots sakon eta lodikoak,

Mediterranoaren inguruko herrialdetakoak nagusitzen dira: Brassens, Brel, Theodorakis, Llach... Bada salbuespen bat, Leonard Cohen kanadar anglofonoarena, baina, ziurrenik, Europan 1970eko hamarraldian izan zuen arrakasta entzutetsuaren eragina besterik ez da. Bada, azkenik poeta-kantari soslai horretatik bereizten dena, Cesare Pavese, hain zuzen; baina esan daiteke, kasu honetan ere, Letek euskarara egokitu eta musikatu zuen poema («*Verra la morte...*») kantatua izan dela, italieraz bezala, beste hizkuntzatan ere. Esan daiteke, beraz, Letek bere *kideen* poemak bereganatu nahi izan zituela.

### **Itzulpena, egokipena**

Euskarara ekarritako poema batzuetan, jatorrizko hitzetatik gehiegi aldendu gabe jokatu zuen Letek; doi-doi, melodiaren eta erritmoaren aginduak behartutako ihesbideetara mugatuta, adibidez, Gabriel Celayaren «El retorno» poemaren kasuan. Bestetan, berriz, aipatu dugun askatasuna muturreraino eramaten du, itzulpenaren zantzu guztiak galdu eta birsortze ariketa guztiz libre batera lerratzeraino. Hori da kasua, esate baterako, Mikis Theodorakis greziar poeta abeslariaren «Izpirituaren eresia», Angelos Sikelianosen «Πνευματικό Εμβατήριο» poemaren gainean sortutako kantua: poemarekin batera den oharrean sarrerako atala bakarrik idazten (hots, euskaratzen) dela aipatzen da, baina jatorrizkoaren aldean, euskaraz ematen den bertsioa oso urruneko egokitzapen bat dela ematen du. Irudi luke Letek eresi osoaren zentzua bildu, eta bere sormen propioaren arauz landutako bertso berrietan eman nahi izan zuela Sikelianosena.

Izan ere, kantuaren melodiak, errimak edo neurriak ezartzen dituen mugakizuen behartasuna ez da aski, kasu askotan, Letek hartzen dituen bide aski urrunak erabat arrazoitzeko. Horren adibide da, esate baterako, Brassens-en «Je me suis fait tout petit», Leteren bertsioa alderatzen badugu Anje Duhalde kantariak 2001ean *Georges Brassensen kantari* diskoan grabatutako bertsioarekin. Ez zentzuarri bakarrik, hitzei ere askoz ere lotuago da Duhalderen aldaera, nahiz Brassenes-en kantaren melodiari orpo orpo jarraitu zion, Letek bezala.

Inoiz, Leteri zalantza ere sortu zitzaion, euskarara egokitutako kanturen batean bertsio libregegia ez ote zuen eman. Hona, horren lekuko, George Brassens-en «Supplique pour être enterré à la plage de Sète» kantaz *Abestitzak eta poema kantatuak* bilduman argitara emandako bertsioaren amaierako oharra:

«Urte asko da abesti honen egokipen oso libre bat egin nuela, eta, aldaketa askorekin, han eta hemen abestu izan dut. Baina orain argitaratzerakoan, hitz haiek oso arrotzak gertatu zaizkit, eta gainera ez nengoen edukiarekin ados. Horrela, itzulpen ahalik eta literalena egitea erabaki dut, eta iruditzen zait, horrela, Brassens beraren hitzekin ez dela batere gaizki gelditu. Barka biezadate bertsio zaharretan ezagutu zutenek».

Urteetan zehar euskarara ekarritako kantuen langintzak emango zion, zurrenik,

ziurtasun apur bat Leteri, jatorrizko hitzei gertuagotik lotzeko, hain oparo itzuli nahi izan zituen Jacques Brel-en hitzetan, oro har, eta «Les timides» kantuan egin zuen bezala.

### **Eredu estetikoak**

Letek euskaraz ipini nahi izan zituen kantu gehienak 1950eko hamarraldian edo hurrengoan sortu eta kaleratutakoak dira. Hautu horien atzean, ziurrenik, Lete kantariaren eta Lete poetaren formazioan eragin sakona utzitako egileen aztarna dago.

Egon daiteke, nolnahi ere, esanahi zabalagorik Leteren jokabide horretan. Ez bakarrik ikuspen estetiko edo sozial bat antzeman daiteke Xabier Letek euskaratutako kantuetan. Euskara batuaren oinarriak zedarritzen ari ziren garaietan, hizkuntza eredu batzuen aldeko hautu batzuk ere igarri daitezke.

Besteak beste, Jacques Brel-en «Amsterdam» kantuaren hitzak euskaraz irakurtzerakoan, berehala datozkigu gogora Pedro Berrondo apaizak *euskara berriaz* 1980an egiten zituen baieztapen garratz haiek:

«Nola litekek lehengo euskera zaharrea mintzatu, oraingo irizpide berriak, Holandako auzo zikin hoietan bildutako iritzietan euskaraz mintzatu. Hori ezin liteke». (*Oh! Euzkadi*, 1980)

**Egileak eta poemak**

Egilea	Jatorrizkoa	Bertsioa
Cesare Pavese	Verrà la morte e avrà i tuoi occhi	Heriotza etorriko da eta zure begiak izanen ditu
Gabriel Celaya	Retorno	Itzulera
George Brassens	Saturne	San Martin, azken larrosa
	Je me suis fait tout petit	Panpinaren begirada
	Supplique pour être enterré à la plage de Sète	Sète hiriko hondartzan lurperatua izateko eskaria
Mikis Theodorakis	Το Πνευματικό Εμβαστήριο	Izpirituaren eresia
Lluís Llach	Vaixell de Grecia	Greziako itsasontzia
	L'estaca	Agure zaharraren erranak
Jacques Brel	Les vieux	Zaharrak
	Les timides	Lotsatiak
	Au suivant	Hurrengoa
	La Chanson des Vieux Amants	Maitale ohikoen abestia
	Ne me quitte pas	Ez nazazu utzi
	Amsterdam	Amsterdam
	Voir un ami pleurer	Lagun bat negarrez
	La ville s'endormait	Hiria lotan zen
	Quand on n'a que l'amour	Maitasuna besterik ez denean
Quand mama reviendra	Ama itzultzean	
Leonard Cohen	Suzanne	Suzanne
	Bird on the wire	Bird on the wire (Txoriak kaiolan)

CESARE PAVESE

### **Verrà la morte e avrà i tuoi occhi**

Verrà la morte e avrà i tuoi occhi  
questa morte che ci accompagna  
dal mattino alla sera, insonne,  
sorda, come un vecchio rimorso  
o un vizio assurdo. I tuoi occhi  
saranno una vana parola,  
un grido taciuto, un silenzio.  
Cosí li vedi ogni mattina  
quando su te sola ti pieghi  
nello specchio. O cara speranza,  
quel giorno sapremo anche noi  
che sei la vita e sei il nulla.  
Per tutti la morte ha uno sguardo.  
Verrà la morte e avrà i tuoi occhi.  
Sarà come smettere un vizio,  
come vedere nello specchio  
riemergere un viso morto,  
come ascoltare un labbro chiuso.  
Scenderemo nel gorgo muti.

### **Heriotza etorriko da eta zure begiak izanen ditu**

Etorriko da zure begiz heriotza  
gor, logabe, alhadura zaharren gisan  
egunsentitik gauera laguntzen gaituen  
ohidura zentzugabe bat bailitzan,  
zure begiak alferrikako hitza izanik  
garrasi mutu, isiltasun oro isil  
goiz bakoitzean aurkitzen dituzu adi  
ispilura begiraturuz, ilun, hurbil.  
Jakinen dugu egun hartan, o itxaropen!  
bizitza zarela ta ezereza  
guztiontzat du heriotzak soa zorrotz  
bakar, mutu, leizera jetsiko gara.  
Entzunen dugu ezpain hertsien mintzoa  
aurpegi hotz bat leihoaren ondoan  
usadioen jantziak zintzilikatuz  
biluztasuna nagusitzen denean,  
zure begiek argi grisaren errainu  
mendi ilunen goizorduko izotza  
esnatzearen dardara eta ikara  
kale hutsetik hurbiltzen zarenean.  
Jakinen dugu egun hartan, o itxaropen!  
bizitza zarela ta ezereza  
guztiontzat du heriotzak soa zorrotz  
bakar, mutu, leizera jetsiko gara.

GABRIEL CELAYA

### El retorno

Ya vuelvo, Euskadi mía,  
ya vuelvo, amor a tí.  
Montañas y distancias,  
no sé si soy feliz  
porque este sentimiento  
que hay soterrado en mí  
es tan tierno y tan viejo  
que parece un sufrir.

Mas ya me habla a lo lejos  
lo que no sé decir,  
y golpea en mi pecho  
el niño que yo fui:  
mil cosas olvidadas  
que ahora me dicen <sí>  
tan sólo con mostrarse  
allí, y allí..., ¡y aquí!

Aquí, sí, sobre todo,  
pequeños y sin fín,  
los detalles concretos  
de un mundo sin deslíz.  
Paisaje de juguete,  
verde y fácil, feliz,  
donde los caseríos  
detallan su perfil.

Te redescubro, Euskadi.  
¡Ay, cuánto recorrí  
mundos insospechados  
para volver a tí!  
Salir, siempre salimos  
los vascos a vivir,  
pero siempre volvemos  
a la paz de tu <así>.

Euskadi, entraña mía,  
madre en que yo nací,  
y acoges al que vuelve,  
cansado de vivir,  
y ahí estás tan segura,  
sin razón, porque sí,  
tan cálida y tan honda  
que al fín puedo dormir.

Mi Euskadi pequeñita,  
mi pueblo, mi sentir  
que ya no es necesario  
ni explicar, ni decir.  
Mi pasado es el tuyo.  
Soy muy viejo: viví.  
Euskadi, vengo herido,  
ayúdame a morir.

GABRIEL CELAYA

### Itzulera

Banator ene Euskadi  
zuregana berriz  
mendi eta lekuak  
urrundik nabariz,  
ez dakit zorionik  
nigan gerta dadin  
ene sentimendua  
sufrirituz da egi.

Lanbropetik datorkit  
ezinesan hori  
izan nintzen haur harek  
bihotza hunkitzen dit,  
mila gauza ahaztuek  
berriz diote «bai»  
han eta hemen agertuz,  
han, hemen eta orain.

Hemen, bai, batez ere  
mugagabe ttiki  
galtzerik ez duen  
zehaztasun bizi,  
jostailuzko lurbira  
berde zoriongarri  
baserrien kokapen,  
ortzearen hutseski.

Berriz aurkitzen zaitut  
lehengoan Euskadi  
izkutuko munduak  
zuregana ibiliz,  
beti goaz euskaldunok  
etxetik urruti  
zure bake haundira  
berriro itzuliz.

Euskadi, ene barne,  
ama jaioterri  
neketan datorrena  
hartzen duena beti  
eta hor zaude hain sendo  
zure baitan berri  
hain bero eta hain sakon,  
atseden jauregi.

Nire Euskadi ttikia,  
ene herri,  
solasik behar ez duen  
adierazpen garbi  
zukan ene iragana:  
zahar nauzu, ibiltari  
zauriturik natorkizu  
hiltzera, Euskadi.

Oharra: "Hutseski" hitza Oteizak asmatutakoa da. Berak esaten zuen lurra eta ortzearen arteko ortzelerro horretan hutsune gisako bat zela sortzen, sakratua. Ez huts hutsala, ohiukatzen duen huts-lerroa baizik, materiaren antzaldatze etereoak: hutseskia.

GEORGE BRASSENS

**Je me suis fait tout petit**

Je n'avais jamais ôté mon chapeau  
Devant personne  
Maintenant je rampe et je fait le beau  
Quand ell' me sonne  
J'étais chien méchant, ell' me fait manger  
Dans sa menotte  
J'avais des dents d'loup, je les ai changées  
Pour des quenottes

**Panpinaren begirada**

Ez nuke noiz ta nola esango  
hari begira  
dardaturik gelditzen nintzen,  
urteak dira,  
suaren bila mitxeleta ero  
amets tartean,  
eta ez nuen bakerik izan  
erre artean.



GEORGE BRASSENS

### **Saturne**

Il est morne, il est taciturne  
Il préside aux choses du temps  
Il porte un joli nom, Saturne  
Mais c'est un Dieu fort inquiétant  
Il porte un joli nom, Saturne  
Mais c'est un Dieu fort inquiétant  
En allant son chemin, morose  
Pour se désennuyer un peu  
Il joue à bousculer les roses  
Le temps tue le temps comme il peut  
Il joue à bousculer les roses  
Le temps tue le temps comme il peut  
Cette saison, c'est toi, ma belle  
Qui a fait les frais de son jeu  
Toi qui a dû payer la gabelle  
Un grain de sel dans tes cheveux  
Toi qui a dû payer la gabelle  
Un grain de sel dans tes cheveux  
C'est pas vilain, les fleurs d'automne  
Et tous les poètes l'ont dit  
Je te regarde et je te donne  
Mon billet qu'ils n'ont pas menti  
Je te regarde et je te donne  
Mon billet qu'ils n'ont pas menti  
Viens encore, viens ma favorite  
Descendons ensemble au jardin  
Viens effeuiller la marguerite  
De l'été de la Saint-Martin  
Viens effeuiller la marguerite  
De l'été de la Saint-Martin  
Je sais par cœur toutes tes grâces  
Et pour me les faire oublier  
Il faudra que Saturne en fasse  
Des tours d'horloge, de sablier  
Et la petite pisseuse d'en face  
Peut bien aller se rhabiller...

### **San Martin, azken larrosa**

Ez da ilun, ez da beldurgarri  
egun joanen itzala  
oin galduak zapaldirik duten  
bide xahar bat bezala.  
Mila negu, mila udaberri  
astindu ditu ekaitzak  
banan-banan lurrean etzanaz  
bizi aroen emaitzak.  
Eta bihar, egusentirako,  
prest egongo da jantzia  
ta ur-gainean isilik legoke mugazainaren ontzia.  
Zatoz, maite, ta azken larrosa  
moz dezagun elkarrekin,  
ez da bihar alferrik izango  
udazkeneko San Martin.  
Eta hala, poliki-poliki,  
azken argia itzaliz,  
etxe zahar maitagarri hartan  
leiho guztiak zabalik,  
mugaz harat eramaten duen  
bidean zehar ibiliz.

Oharra: Hitzen aldetik, desberdintasun haundi xamarra dago abesti honen jatorrizko izenburua eta euskerazko izenburuaren artean. Hala ere, Saturno, mitologian, denboraren jainkoa izanik, hurbil gelditzen zaigu abestiak euskaraz dioenarekin. Eta gainera, San Martinetako azken larrosarena Brassensek berak esaten du ahapaldi batean.

GEORGE BRASSENS

### Supplique pour être enterré à la plage de Sète

La Camarde qui ne m'a jamais pardonné,  
D'avoir semé des fleurs dans les trous de son nez,  
Me poursuit d'un zèle imbécile.  
Alors cerné de près par les enterrements,  
J'ai cru bon de remettre à jour mon testament,  
De me payer un codicille.

Trempe dans l'encre bleue du Golfe du Lion,  
Trempe, trempe ta plume, ô mon vieux tabellion,  
Et de ta plus belle écriture,  
Note ce qu'il faudra qu'il advint de mon corps,  
Lorsque mon âme et lui ne seront plus d'accord,  
Que sur un seul point : la rupture.

Quand mon âme aura pris son vol à l'horizon,  
Vers celle de Gavroche et de Mimi Pinson,  
Celles des titis, des grisettes.  
Que vers le sol natal mon corps soit ramené,  
Dans un sleeping du Paris-Méditerranée,  
Terminus en gare de Sète.

Mon caveau de famille, hélas ! n'est pas tout neuf,  
Vulgairement parlant, il est plein comme un œuf,  
Et d'ici que quelqu'un n'en sorte,  
Il risque de se faire tard et je ne peux,  
Dire à ces braves gens : poussez-vous donc un peu,  
Place aux jeunes en quelque sorte.

Juste au bord de la mer à deux pas des flots bleus,  
Creusez si c'est possible un petit trou moelleux,  
Une bonne petite niche.  
Auprès de mes amis d'enfance, les dauphins,  
Le long de cette grève où le sable est si fin,  
Sur la plage de la corniche.

C'est une plage où même à ses moments furieux,  
Neptune ne se prend jamais trop au sérieux,  
Où quand un bateau fait naufrage,  
Le capitaine crie : "Je suis le maître à bord !  
Sauve qui peut, le vin et le pastis d'abord,  
Chacun sa bonbonne et courage".

Et c'est là que jadis à quinze ans révolus,  
A l'âge où s'amuser tout seul ne suffit plus,  
Je connu la prime amourette.  
Auprès d'une sirène, une femme-poisson,  
Je reçu de l'amour la première leçon,  
Avalai la première arête.

Déférence gardée envers Paul Valéry,  
Moi l'humble troubadour sur lui je renchéris,  
Le bon maître me le pardonne.  
Et qu'au moins si ses vers valent mieux que les miens,  
Mon cimetière soit plus marin que le sien,  
Et n'en déplaise aux autochtones.

Cette tombe en sandwich entre le ciel et l'eau,  
Ne donnera pas une ombre triste au tableau,  
Mais un charme indéfinissable.  
Les baigneuses s'en serviront de paravent,  
Pour changer de tenue et les petits enfants,  
Diront : chouette, un château de sable !

Est-ce trop demander : sur mon petit lopin,  
Planter, je vous en prie une espèce de pin,  
Pin parasol de préférence.  
Qui saura prémunir contre l'insolation,  
Les bons amis venus faire sur ma concession,  
D'affectueuses révérences.

Tantôt venant d'Espagne et tantôt d'Italie,  
Tous chargés de parfums, de musiques jolies,  
Le Mistral et la Tramontane,  
Sur mon dernier sommeil verseront les échos,  
De villanelle, un jour, un jour de fandango,  
De tarentelle, de sardane.

Et quand prenant ma butte en guise d'oreiller,  
Une ondine viendra gentiment sommeiller,  
Avec moins que rien de costume,  
J'en demande pardon par avance à Jésus,  
Si l'ombre de ma croix s'y couche un peu dessus,  
Pour un petit bonheur posthume.

.../...

GEORGE BRASSENS

### **Sète hiriko hondartzan lurperatua izateko eskaria**

Lorez inguratuz pozez bizitzea  
Herio zekenak, zer gauza tristea,  
inola ez baitit barkatzen,  
lurperatzaileen itzalaren susmoz  
hasi naiz, paperak argitzeko asmoz  
testamentua prestatzen.

Busti begirada itsas urdinean  
busti zure luma tinta ilunean  
eta idazkera ederrez  
esazu non utzi nere hondakinak  
gorputza eta arima, ez hain lagun minak,  
nere azkenaz adostean.

Nere arima, hegan, ortzeruntz joatean  
mugarik ez duten zeruen atean  
emazte maiteen bila,  
Marseillako trenak Paris agurtzean  
Sète-ko hirira lehenengo klasean  
bidaiatu nahi dut hila.

Nere senditarren hilobi zaharra  
leporaino dago, egoera txarra,  
beste bat ez da kabitzen,  
eta horregatik, berandu baino lehen,  
herritar lagunak asper ez daitezen  
zerbait behar dut asmatu.

Itsas bazterrean, hondartzaren muga  
nahi nuke, ahal balitz, eta ez egon dudan,  
hilobi bat erosoia,  
hautzaroko lagun delfinen ondoan  
hain argitsua den Liongo golkoan  
hartu atsedeen osoa.

Haserrealdirik latzenean ere  
Neptunok ez baitu gogorik batere  
inori egiteko kalte,  
itsasontzi batzuk larri badabilta  
kapitainak dauka salbatzeko giltza  
tabernara heldu arte.

Hamabost urtetan, adin negartia,  
ez denez nahikoa plazer bakartia  
lehen aldiz, hondartza hartan  
dastatua nuen neska bat polita  
sirena itxuran nigana etorrita  
maitasuna eskeintzera.

Errespetu haundiz, Paul Valery jauna  
entzun koblakari honetxan esana,  
eta barkatu ausardia  
bertsotan zu askoz hobia izanik  
hilerrria, aldiz, ederragoa dut nik  
ta herritarren gustokoa.

Zeru eta lurren arteko hilobiak  
adur txarrik ez du, ditu men nobliak  
eta xarma bereziak,  
itsastiarrentzat babes ona izanik  
jazkera aldatzeko aukera ona nik  
ematen diet guztiei.

Gehiegi ez balitz hori eskatzea  
benetan nahi nuke hantxe aldatzea  
pinu eder bat alboan,  
horrela, eguzki gehiegitik salbu  
nere lagunekin solasterik banu  
zoriontsu nintzateke.

Espainiar doinuz, edo Italiatik  
perfumez beterik haizeen gainetik  
musika bat entzutean,  
dantzatu nahi nuke tarantela zorbait  
eta sardana ere asko gustatzen zait  
tramontanaren haizetan.

Sirena polit bat hor etzaten bada  
loaldi ttiki bat egiteko, iada  
bilutsik, oh adur ona!  
Jesusi barkamen nahi diot eskatu  
gurutze horretan nahi baitut pairatu  
nere azken zoriona.

.../...

Pauvres rois pharaons, pauvre Napoléon,  
Pauvres grands disparus gisant au Panthéon,  
Pauvres cendres de conséquence,  
Vous enviez un peu l'éternel estivant,  
Qui fait du pédalo sur la vague en rêvant,  
Qui passe sa mort en vacances.

Faraon gaixoak, gaixo Napoleon  
zenbat piramide ta zenbat Pantheon  
errauts batzuk jasotzeko,  
agurtzen zaituztet itsas-bazterretik  
eternitatea oporretan beti  
pozik baitut igarotzen.

Oharrak:

Urte asko da abesti honen egokipen oso libre bat  
egin nuela, eta, aldaketa askorekin, han eta hemen  
abestu izan dut. Baina orain argitaratzerakoan, hitz  
haiek oso arrotzak gertatu zaizkit, eta gainera ez  
nengoen edukiarekin ados. Horrela, itzulpen ahalik  
eta literalena egitea erabaki dut, eta iruditzen zait,  
horrela, Brassens beraren hitzekin ez dela batere  
gaizki gelditu. Barka biezadate bertsio zaharretan  
ezagutu zutenek.

Paul Valéry poeta famatua Sète hirian jaioa zen,  
Brassens bezela, eta gainera hiri hartako itsas gaineko  
hilerrian lurperatua dago. Beste poemaren artean,  
idatzi zuen "Le cimetière marin" deitzen den poema  
eder bat... Hori dena kontuan hartuz uler daiteke  
kantariak poetari esaten diona.

ΜΙΚΗΣ ΘΕΟΔΩΡΑΚΗΣ

MIKIS THEODORAKIS

### Πνευματικό Εμβατήριο

Σαν έριξα και το στερνό δαυλί στο φωτογώνι  
(δαυλί της ζωής μου της κλεισμένης μες στο χρόνο)  
στο φωτογώνι της καινούργιας Λευτεριάς Σου Ελλάδα,  
μου αναλαμπάδιασε άξαφνα η ψυχή, σα να 'ταν  
όλο χαλκός το διάστημα, ή ως να 'χα  
τ' άγιο κελί του Ηράκλειτου τριγύρα μου  
όπου χρόνια,  
για την Αιωνιότητα εχάλκευε τους λογισμούς του  
και τους κρεμνούσε ως άρματα  
στης Έφεσος το Ναό.

### Izpirituaren eresia

Bizidunok, erne, adi, entzun nere arrena  
errukiak ikuz dezan gorrotoen iraina.  
Itsasoaren beilari egunsentiko lehen orduan.  
Izpirituaren oihuak itsuak iratzar ditzan  
argiaren miresmenera,  
adimenak  
keinu zitalen halabeharrak deseginik  
senideen egoitza arautu dezan,  
eramankor  
odolik gabea,  
asmo gorenaren arnasetik  
aberriak duintasuna eskura dezan

LLUIS LLACH

### **Vaixell de Grecia**

Si per les albes veieu passar un vaixell  
besant les aigües del mar bressol dels déus  
feu-li senyal, que pugui veure on som  
i caminar amb nosaltres cap el nord.

Si no duu xarxa, ni orsa, ni timó,  
no penseu mai que ho hagi perdut tot,  
que el poble sempre podrà inflar el velam  
per guanyar onades fetes de por i de sang.

Vaixell que plores igual que plora el meu,  
que duus la pena i el dol que porta el meu,  
vaixell de grècia, que no t'enfonsi el tro,  
infla les veles que anem al mateix port.

### **Greziako itsasontzia**

Itsasoz gaindi ikusten baduzu  
gure gogoa daraman ontzia  
etzazu pentsa galdua dihoanik  
argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets, negar ta desio  
ez du ekaitzak hondora botako,  
salbatuko da goizeko ontzia  
kaiaren bila hegaka joateko.

Arraun berriek eramango dute  
bide zaharretik askatasunera  
oihal zuriek haizea bildurik  
gure arnasa biltzen den batera.

Ez du ekaitzak hondora botako  
salbatuko da goizeko ontzia.

LLUIS LLACH

### **L'estaca**

L'avi Siset em parlava  
de bon matí al portal  
mentre el sol esperàvem  
i els carros vèiem passar.  
Siset, que no veus l'estaca  
on estem tots lligats?  
Si no podem desfer-nos-en  
mai no podrem caminar!

Si estirem tots, ella caurà  
i molt de temps no pot durar.  
Segur que tomba, tomba, tomba,  
ben corcada deu ser ja.  
Si jo l'estiro fort per aquí  
i tu l'estires fort per allà,  
segur que tomba, tomba, tomba,  
i ens podrem alliberar.

Però, Siset, fa molt temps ja,  
les mans se'm van escorçant,  
i quan la força se me'n va  
ella és més ampla i més gran.  
Ben cert sé que està podrida  
però és que, Siset, pesa tant,  
que a cops la força m'oblida.  
Torna'm a dir el teu cant:

Si estirem tots, ella caurà  
i molt de temps no pot durar.  
Segur que tomba, tomba, tomba,  
ben corcada deu ser ja.  
Si jo l'estiro fort per aquí  
i tu l'estires fort per allà,  
segur que tomba, tomba, tomba,  
i ens podrem alliberar.

L'avi Siset ja no diu res,  
mal vent que se l'emporta,  
ell qui sap cap a quin indret  
i jo a sota el portal.  
I mentre passen els nous vailets  
estiro el coll per cantar  
el darrer cant d'en Siset,  
el darrer que em va ensenyar.

Si estirem tots, ella caurà  
i molt de temps no pot durar.  
Segur que tomba, tomba, tomba,  
ben corcada deu ser ja.  
Si jo l'estiro fort per aquí  
i tu l'estires fort per allà,  
segur que tomba, tomba, tomba,  
i ens podrem alliberar.

LLUIS LLACH

### **Agure zaharraren erranak**

Agure zahar batek zioen  
bere etxe-aurrean  
goizean goiz lantokira  
irtetzen nintzenez:  
ez ahal duk, gazte, ikusten  
gure hesola zein dan,  
desegiten ez badugu  
bertan galduko gera.

Baina guztiok batera  
saiatu hura botatzera  
usteltzen hasia dago ta  
laster eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan  
ta bultza nik hemendikan  
ikusiko duk nola  
laster eroriko dan.

Baina denbora badoa  
nekea zaigu hasi  
eskuak apurtu zaizkit  
eta indarrak utzi,  
usteltzen badago ere  
karga badu oraindik,  
berriz arnasa hartzeko  
esaigun elkarrekin.

Baina guztiok batera  
saiatu hura botatzera  
usteltzen hasia dago ta  
laster eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan  
ta bultza nik hemendikan  
ikusiko duk nola  
laster eroriko dan.

Agure zaharra falta da  
bere etxe-ondotik  
haize txar batek hartuta  
eraman du hemendik,  
haur batzuk ikusten ditut  
eta inguraturik  
aitona zaharraren kanta  
nahi diet irakatsi.

Baina guztiok batera  
saiatu hura botatzera  
usteltzen hasia dago ta  
laster eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan  
ta bultza nik hemendikan  
ikusiko duk nola  
laster eroriko dan.

JACQUES BREL

**Les vieux**

Les vieux ne parlent plus ou alors seulement parfois du bout des yeux  
Même riches ils sont pauvres, ils n'ont plus d'illusions et n'ont qu'un coeur pour deux  
Chez eux ça sent le thym, le propre, la lavande et le verbe d'antan  
Que l'on vive à Paris on vit tous en province quand on vit trop longtemps  
Est-ce d'avoir trop ri que leur voix se lézarde quand ils parlent d'hier  
Et d'avoir trop pleuré que des larmes encore leur perlent aux paupières  
Et s'ils tremblent un peu est-ce de voir vieillir la pendule d'argent  
Qui ronronne au salon, qui dit oui qui dit non, qui dit: je vous attends

Les vieux ne rêvent plus, leurs livres s'ensommeillent, leurs pianos sont fermés  
Le petit chat est mort, le muscat du dimanche ne les fait plus chanter  
Les vieux ne bougent plus leurs gestes ont trop de rides leur monde est trop petit  
Du lit à la fenêtre, puis du lit au fauteuil et puis du lit au lit  
Et s'ils sortent encore bras dessus bras dessous tout habillés de raide  
C'est pour suivre au soleil l'enterrement d'un plus vieux, l'enterrement d'une plus laide  
Et le temps d'un sanglot, oublier toute une heure la pendule d'argent  
Qui ronronne au salon, qui dit oui qui dit non, et puis qui les attend

Les vieux ne meurent pas, ils s'endorment un jour et dorment trop longtemps  
Ils se tiennent la main, ils ont peur de se perdre et se perdent pourtant  
Et l'autre reste là, le meilleur ou le pire, le doux ou le sévère  
Cela n'importe pas, celui des deux qui reste se retrouve en enfer  
Vous le verrez peut-être, vous la verrez parfois en pluie et en chagrin  
Traverser le présent en s'excusant déjà de n'être pas plus loin  
Et fuir devant vous une dernière fois la pendule d'argent  
Qui ronronne au salon, qui dit oui qui dit non, qui leur dit: je t'attends  
Qui ronronne au salon, qui dit oui qui dit non et puis qui nous attend.



JACQUES BREL

### **Zaharrak**

Zaharrek solasik ez, une bakanetan baizik begiekin, esku-huts diraute, bihotz bat biontzat, itxaropen gabe. Usadio zaharren oroitzapenetan dute aberria erbestean beti bizitza gehiegi luzatzen denean. Irri eta negar, begi bustietan haien iragana eta aurpegiko azal zimurretan lekukotasuna, ordulariaren esan jarraituan zaharragotzen dira haren mintzoari erantzun ezinik ezbai larrituan.

Zaharrek ametsik ez, liburuak lotan, pianoak isil katutxoa hiltzen, arnoaren suak ez ditu alaitzen. Beren mundu hori ttikiagotzen da ordutik ordura ohetik leihora, ohetik salara, ohetik ohera. Eta irtetzen badira besotik helduta apainago jantziz zaharrago baten ehorketa hartan parte hartzeko da zotin ta negarrez, une labur batez hila onesteko, badakitelarik beraien ordua ere hurbil dela.

Zaharrak ez dira hiltzen, lokartzen dira behin lotan irauteko, horregatik bada, beldur direlako daramate elkar besotik helduta, batak besteari arnasa itzuliz, baina alferrik da, bat hiltzen denean bestea da galtzen. Hortxen dituzue, zuengandik hurbil eta hain baztertuak beti igarotzen doaz barkamena eskatuz bizi izateagatik... Ordulari zaharrak "itxoiten dizuet" oihukatzen die errukirik gabe orduen joanean bizia lapurtuz errukirik gabe orduen joanean bizia kenduz.

JACQUES BREL

**Les timides**

Les timides  
Ça s'tortille  
Ça s'entortille  
Ça sautille  
Ça s'met en vrille  
Ça s'acroqueville  
Ça rêve d'être un lapin  
Peu importe  
D'où ils sortent  
Mais feuilles mortes  
Quand le vent les porte  
Devant nos portes  
On dirait qu'ils portent  
Une valise dans chaque main

Mais les timides  
Un soir d'audace  
Devant leur glace  
Rêvant d'espace  
Mettent leur cuirasse  
Et alors place !  
Allons, Paris  
Tiens-toi bien !  
Et vive la gare  
Saint-Lazare  
Mais on s'égare  
On s'effare  
On s'désempare  
Et on repart  
Une valise dans chaque main

Les timides  
Alors vieillissent  
Alors finissent  
Se rapetissent  
Et quand ils glissent  
Dans les abysses  
Je veux dire  
Quand ils meurent  
N'osent rien dire  
Rien maudire  
N'osent frémir  
N'osent sourire  
Juste un soupir  
Et ils meurent  
Une valise sur le cœur

Les timides  
Suivent l'ombre  
L'ombre sombre  
De leur ombre  
Seule la pénombre  
Sait le nombre  
De leurs pudeurs de Levantin  
Ils se plissent  
Ils pâlisent  
Ils jaunissent  
Ils rosissent  
Ils rougissent  
S'écrevisent  
Une valise dans chaque main

Les timides  
Quand ils chavirent  
Pour une Elvire  
Ont des soupirs  
Ont des désirs  
Qu'ils désirent dire  
Mais ils n'osent pas bien  
Et leur maîtresse  
Plus prêtresse  
En ivresse  
Qu'en tendresse  
Un soir les laisse  
Du bout des fesses  
Une valise dans chaque main

JACQUES BREL

**Lotsatiak**

Lotsatiak  
nahasten dira  
zimurtzen dira,  
jauzika dira  
aidean dira,  
makurtzen dira  
untxi baten gisan,  
sorterri bat  
nahi lukete,  
baina hosto hilak  
ekaitzen menpe  
gure atetik  
pasatzen dira  
maleta bana eskuan.

Lotsatiek  
egun batez  
ausarkeriz  
tokia hartuz  
beren abesak  
jartzen dituzte  
Parisen  
erdian,  
Saint Lazare  
geltokian,  
baina beldurtuz,  
mesfidatuz  
ihesa hartuz  
urrun doaz  
maleta bana eskuan.

Lotsatiak  
zahartzen dira  
hausten dira,  
mehetzen dira,  
eta zulora  
irristatzean,  
esan nahi dut  
hiltzean,  
deus esan gabe,  
biraorik gabe,  
irrifar gabe,  
mezurik gabe,  
joaten dira  
min bat dutela  
bihotzaren erdian.

Lotsatiak  
itzaletik  
beren itzalen  
itzal beltzetik,  
ilunak daki  
haien lotsen  
sustrai gordeena,  
kizkurturik,  
zurbildurik,  
horiturik,  
gorriturik  
beren lotsa  
daramate  
eskuetan zintzilik.

Lotsatiek  
suspirioz  
neska batekin  
amestean  
ai! nahi lukete  
ari mintza,  
ez dira ausartzen,  
sazerdotisek  
xamurtasunik  
nola ez duten,  
iraina baizik,  
bazter batean  
uzten dituzte  
maleta bana eskuan.

JACQUES BREL

**Au suivant**

Tout nu dans ma serviette qui me servait de pagne  
J'avais le rouge au front et le savon à la main  
Au suivant, au suivant  
J'avais juste vingt ans et nous étions cent vingt  
A être le suivant de celui qu'on suivait  
Au suivant, au suivant  
J'avais juste vingt ans et je me déniaisais  
Au bordel ambulatant d'une armée en campagne  
Au suivant, au suivant

Moi j'aurais bien aimé un peu plus de tendresse  
Ou alors un sourire ou bien avoir le temps  
Mais au suivant, au suivant  
Ce n'fut pas Waterloo mais ce n'fut pas Arcole  
Ce fut l'heure où l'on r'grette d'avoir manqué l'école  
Au suivant, au suivant  
Mais je jure que d'entendre cet adjudant d'mes fesses  
C'est des coups à vous faire des armées d'impuissants  
Au suivant, au suivant

Je jure sur la tête de ma première vérole  
Que cette voix depuis je l'entends tout le temps  
Au suivant, au suivant  
Cette voix qui sentait l'ail et le mauvais alcool  
C'est la voix des nations et c'est la voix du sang  
Au suivant, au suivant  
Et depuis chaque femme à l'heure de succomber  
Entre mes bras trop maigres semble me murmurer :  
"Au suivant, au suivant"

Tous les suivants du monde devraient s'donner la main  
